

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK LEHEN HEZKUNTZA

2026
2027

Jesusen Bihotza Mundaiz ikastetxea

Hello!

Hi!


Ingelesa




Gimnasia
erritmikoa



Irristaketa



Aloha-arin



Robotika



Mekanografia



Abesbatza



Tipi-tapa
eta Tope euskaraz



Margolaritza



Tenisa





Sagrado Corazón Mundaiz

Guraso agurgarriok:

Honen bitartez 2026-27 ikasterterako ikastetxean aurreikusi ditugun eskolaz kanpoko jardueren eskaintza jakinarazi nahi dizuegu.

Elduaian: Ingelesa (LH 1.-6. mailak)

Elduaianek esperientzia handia du ingelesaren irakaskuntzan. Saioetan metodologia dinamiko eta parte-hartzailea erabiltzen da, ikasleen adinera eta beharretara egokituta. Jolasen, ahozko jardueren eta askotariko baliabideen bidez, ikasleek ingelesa erabiltzeko konfiantza hartzen dute eta hizkuntzaren trebetasun nagusiak garatzen dituzte, giro motibagarri eta atsegin batean.



Irristaketa (LH 1.-2. mailak)

Patinaje-eskola hockeyko harrobi nagusia da Mundaizen. Gainera, mugimenduen eta ariketen bidez oreka garatzen eta gorputzaren harmonia mantentzen duen jarduera da.



Izar Leku kluba: Gimnasia erritmikoa (LH 1.-6. mailak)

Gimnasia erritmikoa musika-koordinazioa eta erritmoa dotoretasunarekin eta tapizaren gaineko trebetasunarekin konbinatzen ditu. Jendaurrean egindako ariketen aurkezpenak arrakasta du entrenamendu-ordu askoren ondoren. Baina kirol honengatik pasioak sakrifizio guztiek gutxi irudi dezatela lortzen du.

Informazio gehiagorako: [Izar Leku](#)





Sagrado Corazón Mundaiz

Aloha Arin! (LH 1.-6. mailak)

ALOHA/ARIN! garapen mentaleko programa da eta honako heburu hauek ditu:

- Ikasleen kontzentrazio, arreta eta matematika-gaitasunak hobetzea, metodologia oso dibertigarri eta eraginkor baten bidez: abako bidezko kalkuluak, kalkulu mentala eta jolas sistematizatuak.

Aurkezpen-bideo laburrak erantsi ditugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=ogkIe7isLA4>

<https://www.youtube.com/watch?v=PQpnHXUnZ8Y> ;

Informazio gehiagorako jo esteka

honetara: <https://www.alohaspain.com/es/para-padres>



Gaurkotek (LH 2.-6. mailak)

GaurkoTek-eko Robotika eta Teknologia saioetan bideojokoak eta robotak diseinatzen eta programatzen ikasiko dute. Horretaz gain, elektronikako esperimendu txikiak ere egingo ditugu, eta ikastaroetan zehar bideo- eta irudi-edizioa, 3D diseinua eta aplikazio mugikorren sorkuntza ere landuko ditugu, besteak beste. Minecraft bezalako tresnak erabiltzen ditugu portaera eta egitura logikoak programatzeko dibertitzen diren bitartean.

Proiektuka eta taldeka lan egiten dugu, aurrera egin ahala zailtasuna handituz. Gela birtual pribatu bat dugu, etxetik lanean jarraitzeko edo saioen jarraipena egiteko.

Gure helburuak pentsamendu logiko eta konputazionalen sartzea da, biharko egunean "makinen hizkuntza" hobeto uler dezaten, sormena eta talde-lana sustatzea eta erabakigarriak izaten ikastea dira.



Donostiako Orfeoia (LH 3.-6. mailak)

Musika gustuko baduzu, Orfeoiak gaur egungo obrak koreografiekin, gorputz-perkusioarekin eta

dantzekin abesten irakatsiko dizu. **Anima zaitetz eta Donostiako Orfeoiko kide izan.**



ORFEON DONOSTIARRA
DONOSTIAKO ORFEOIA




Sagrado Corazón Mundaiz

Margolaritza (LH 3.-6. mailak)

Marraskia eta pinturaren bitartez, haurrak bere ahalmen sortzailea garatzen ikasten du. Eremu adierazkorra izateaz gain, jarduera artistikoaren bidez, haurrak keinuak, espazioa, formak, koloreak ezagutzen eta erabiltzen ditu, behaketaren sena garatzen du eta eskematizatzeko gaitasuna zorrotzen du.

Xake (LH 1.-6. mailak)

Xake jarduera pentsamendu logikoa, kontzentrazioa eta lan estrategikoa sustatzera bideratuta dago. Klaseak adin eta maila desberdinetara egokituta daude, eta teoria zein praktika giro dibertigarri eta hezigarri batean integratzen dituzte. Irakasleek beharrezko titulazio ofiziala eta esperientzia zabala dute, eta horrek kalitate handiko irakaskuntza ziurtatzen du. Jolasten ikasteaz gain, ikasleek trebetasun sozialak, balioak eta bereganako konfiantza garatzen dute. XAKE MATE aspertzeari!!



Euskal Xake Eskola

Kluppy: Mekanografia (LH 4.-6. mailak)

KLUPPY Learn by playing ideia garbi batekin jaio da: idazketa digitalera iraultza ekartzea. Hori dela eta, mekanografia formatu guztiz berritzaile batean eraberrituan ekarri dugu.

KLUPPY
LEARN BY PLAYING

“TIPI-TAPA EUSKARAZ (1º y 2º de EP)

Hurrek ordubete pasatzen dute hezitzailearekin jokoak, abestiak, antzerkiak, eskulanak eta jarduera ludikoak egiten euskaraz, giro lasaian. Hezitzaileak saiatuko dira hurrek ahalik eta gehien komunikatu eta hitz egin dezaten, ondo pasatuz eta euskaraz soilik hitz eginez..





Sagrado Corazón Mundaiz

“TOPE EUSKARAZ” (3º y 4º de EP)

Tope euskaraz ekimenaren helburua euskararen erabilera sustatzeko eta gure ikasleen motibazioa handitzea da. Ekimen honek jolasak eta dinamika dibertigarriak izango ditu oinarri beti ere ikasketa eta elkarrekin-tza positiboa bultzatuz. Honako jarduerak egingo ditugu: Hizkuntza lantzeko jolasak, jolas kooperatiboak, “hitz pasa” jolasa, “inspektore lanetan” jolasa,... Euskara jolasean, elkarrekin eta gozoz bizitzeko aukera paregabea izango da.



Hockey (LH 3.-6. mailak)

Patin hockeya bost jokalariz osaturiko bi talderen (zelaiko lau jokalaria eta atezain bat) arteko lehia datzan kirola da. Zelaiak hesiz inguratuta egon behar du, izkinak borobilduak eta zelai bakoitzean porteria bana egon behar du. Jokalariak lau gurgil paraleloz osaturiko patinen bidez mugitu behar dira eta sticka edo zurezko makil kurbatu baten bidez kautxuzko pilota bat gidatu behar dute, hau aurkako taldearen porteria sartzen saiatuz.

Hockey Mundaiz Klubak 40 urteko ibilbidea du eta familia bihurtu da non jokalaria guztientzat bizikidetasuna eta adiskidetasuna oinarri bihurtu diren.

Jolashezi: eskola kirola (LH 1.-2. mailak)

Eskaintza berri hau 6-8 urte bitarteko haurrei eskaintzen zaie.

Programa honen helburua da, batetik, adin horretako haurrentzat egokia izango den prestakuntza eskaintza bat edukitzea, haien garapen motor, sozial eta afektiboa ahalbidetzeko. Konfiantzaren pedagogia deiturikoan oinarritzen da. Xedetzat du konfiantzazko inguruneak sortzea, adin txikikoek beren potentzial osoa gara dezaten, jolasaren bidez, eta ikasleek adin horietan garatu behar dituzten konpetentziak egokitutako erronkak proposatuz. Programa diseinatzerakoan kontuan hartu dira, halaber, balioetan oinarritutako hezkuntza, euskal kulturaren berezko edukiak eta euskararen erabileraren sustapena.

Mundaiz Futbol-eskola (LH 3.-6. mailak)

Mundaiz Futbol Eskola parte-hartzaileen hobekuntza tekniko, taktiko eta estrategikora orientatutako kirol-taldea da, gure entrenatzaileek prestatutako ariketa espezifikoaren bidez.

Paddle surf (LH 5.-6. mailak)



Badago modu hoberik Urumea ibaiko urak zeharkatzea baino? Ikastaroaren garapenean teknika ikasi eta hobetuko dugu sup-eko ohol mota ezberdinetan. Stand up paddle-a izango da egingo dugun kirola beti giro ludiko batean. Irakaskuntza bermatua egongo da.



Sagrado Corazón Mundaiz

DONOSTIAKO TENIS ELKARTE ERREALA (LH 1. - 6. mailak)

Ekimen honek **Donostiako tenis elkarte Errealeko** profesional bat izango du, jarduera ikuskatzen eta sustatzen soilik arituko dena, kalitate handiko kirol-esperientzia ziurtatuz. Eskolak talde txikietan emango dira, arreta pertsonalizatua eta ikaskuntza eraginkorragoa izateko.

Aukera bikaina da haurrak kirol honetan has daitezen edo trebetasunak hobetu ditzaten, beren beharretara egokitutako ingurune motibatzaile batean.





Sagrado Corazón Mundaiz

EBALUAZIO SISTEMA

Eskolaz kanpoko jardueren ebaluazioa egingo da. Hiruhilekoaren bukaeran irakasleak ikaslearen txosten pertsonala osatuko du eta gurasoei bidaliko die.

JARDUEREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA

Jarduera bakoitzaren ordutegiak esteka honetan topatuko dituzue: [ordutegiak](#).

Jarraian jarduera bakoitzaren hasiera eguna duzue:

- **Ingelesa (Elduaien)** irailaren 7ko astean hasiko dira.
- **Gimnasia erritmikoa** eta **tenisa** irailaren 14ko astean hasiko dira.
- Eguerdian egiten diren gainerako jarduerak urrian hasiko dira.
- **Patinajea, hockey, kirol anitza, Mundaiz futbol eskola eta jolas-hezi** irailaren bukaeran edo urriaren hasieran hasiko dira. Posta elektronikoz abisatuko da.
- **Paddle surf**-a hirugarren hiruhilekoan egingo da, apirilaren 5eko astean hasiko da.

Kirol jarduera batzuk berariazko egutegia izaten dute. Informazioa familiei dagokionean helaraziko zaie.

IZEN-EMATEA, PREZIOAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

Esteka honetara zuzendu jarduera bakoitzaren prezioak topatzeko: [prezioak](#).

Kontuz! Izen emateko bi esteka desberdin daude, alde batetik, eguerdian egiten diren ekintzetan izena emateko eta bestetik, arratsaldeko kiroleetan izena emateko.

Eguerdiko ekintzetan izena emateko hurrengo galdetegi bete: [izen-ematea](#).

Kiroleko ekintzetan izena emateko beste galdetegi hau bete: [izen-ematea](#).

Gogoratu jarduera bakoitzeko galdetegi bat bete behar dela.

Izen-emate epea: abuztuaren 25etik irailaren 2ra.

Oro har, ikasturtearen prezio osoa 8 kuotatan banatuko da (urritik ekainera bitarte). Kuota banketxez pasatzen den ikastetxeko hilerokoari erantsiko zaio.

Jarduera batzuk berezko ordaintzeko modua dute.

Edozein jardueratarako izen-emateak **gutxieneko konpromisoa** ekartzen du: **4 kuota**. [Behin jarduera hasita, ez da baxarik onartuko ezta kuotarekin proportzionala den zatia itzuliko.](#)

ARDURADUNAK ETA IRAKASLEAK

Koordinatzailea:	Patricia Tejero (ekj@gmundaiz.com)
Kiroleko koordinatzailea:	Daniel Alonso (kirolak@gmundaiz.com)
Elduaien:	Larraitz Erize (estraeskolarrak@elduaien.com)
Aloha-Arin:	Alai Proiektuak (info@alaproiektuak.eus)
Gaurkotek:	Mikel Lizarraga (gaurkotek@gmail.com)
Izar Leku kluba:	Itziar Beluche (itziarbeluche.ritmica@gmail.com)
Donostiako Orfeoia:	Sonia Esturo (info@orfeondonostiarra.org)
Pintura:	Jose Manuel Brancussi (jose@brancussi.es)
Xake:	Iñigo Argan (xakeskola@gmail.com)
Kuppy:	Ander Urquiza (a.urquiza@kluppy.com)
TIPI-TAPA / TOPE :	Maite Poza (kiriketan@kiriketan.com)
Paddle surf:	Ibon Aguirrezabala (ibon@rctss.com)
Tenisa :	Jon Castellano (jon@rctss.com)



Sagrado Corazón Mundaiz

ARAUDIA

- Taldeek **ikasle-kopuru mugatua** izango dute eta izen-ematearen orriaren arabera osatuko dira. Bajak **itxarote-zerrendaren ordenaren arabera** osatuko dira.
- Izena eman duten ikasle kopurua taldea osatzeko nahikoa ez bada, jarduera ez da martxan jarriko eta gurasoei jakinaraziko zaie.
- Ikasleek ezin izango dute izena eman asteroko bi orduko den eta ordutegi-interferentziagatik edo beste zirkunstantzia bategatik egun batean soilik joan daitekeen jardueran.
- Edozein jardueratarako izen-emateak **gutxieneko konpromisoa** ekartzen du: **4 kuota**. Behin jarduera hasita, ez da bazarik onartuko ezta kuotarekin proportzionala den zatia itzuliko.
- **Asistentzia eta puntualtasuna**. Asistentzia nahitaezkoa da. Hutsegiteak eta puntualtasun faltak errepikatuz gero, gurasoei jakinaraziko zaizkie eta berriro gertatuz gero, jardueran baja arrazioa izan ahal izango dira.
- Ikasle guztiak **ikasgela garbiak mantentzen, klase-altzariak zaintzen eta bere ikaslagunen eskola-materiala errespetatzen** saiatuko dira. Arratsaldean ikasleak bere klaseetara itzuliko direnean kexak eta ustekabeak saihestuko dira.

Agur bero bat.

Patricia Tejero



Donostia-San Sebastián, 2026ko ekainaren 23a